



DONOSTIA KULTURA EEP-REN IKASTAROEN PROGRAMAK DISEINATZEKO ETA ESKAINTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA

- 1. KONTRATUAREN XEDEA**
- 2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA**
- 3. ESLEIPEN PROZEDURA**
- 4. ALDAGAIK**
- 5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA**
- 6. IRAUPENA**
- 7. LIZITAZIOKO GEHIENEZKO PREZIO UNITARIOAK ETA KONTRATUEN BALIO ZENBATETSIA**
- 8. PREZIOA ORDAINTZEA**
- 9. PREZIOA BERRIKUSTEA**
- 10. PUBLIZITATEA**
- 11. BEHIN BETIKO BERMEA**
- 12. GAITASUN BALDINTZAK**
- 13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**
- 14. BALORAZIO IRIZPIDEAK**
- 15. EBALUAZIO BATZORDEA**
- 16. PROPOSAMENAK IREKITZEA**
- 17. KONTRATUAK ESLEITZEA**
- 18. KONTRATUAK HOBETZEA ETA FORMALIZATZEA**
- 19. KONTRATUAREN ARDURADUNA**
- 20. KONTRATUAK GAUZATZEA**
- 21. OINARRIZKO KONTRATU BETEBEHARRAK**
- 22. DATUEN BABESA**
- 23. IRUDI ESKUBIDEAK ETA JABETZA INTELEKTUALA**
- 24. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA**

25. ZIGORRAK<

26. KONTRATUAK LAGATZEA

27. AZPIKONTRATAZIOA

28. KONTRATUAK ALDATZEA

29. ERANTZUKIZUNA

30. KONTRATUAK ETETEA

31. HARRERA<

32. KONTRATUAK SUNTSIARAZTEA

33. ARAUBIDE JURIDIKOA

34. JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA. ABAL EREDUA

II. ERANSKINA. LIZITATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK, JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO

III. ERANSKINA. AITORPEN ERANTZULEA

IV. D. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

V. ERANSKINA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ALORREKO BETEBEHARRAK BETETZEN DIRELA ZIURTATZEN DUEN AITORPEN ERANTZULEA

ADIERAZPENEN NOTARIO AKTAREN EREDUA, ENPRESA LIZITATZAILEAK ESKATZEN DEN KAUDIMENA ZIURTATZEKO EDO GUTXIENEKO GIZA BITARTEKOAK KONTRATURA ATXIKITZEKO KONPROMISOA BETETZEKO BESTE ENTITATE BATZUEN KAUDIMENA ETA GIZA BITARTEKOAK ERABILI BEHAR BADITU

VIII. ERANSKINA. KAUDIMENA

DONOSTIA KULTURA EEP-REN IKASTAROEN PROGRAMAK DISEINATZEKO ETA ESKAINTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea da enpresa bat edo gehiago kontratatzea, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren (DONOSTIA KULTURA aurrerantzean) kultur etxeetan antolatzen diren ikastaro eta tailerren programak diseinatzeko eta eskaintzeko zerbitzua eskaintzeko, betiere Orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian aurreikusten denaren arabera.

Ikastaroen programak diseinatzeko zerbitzuan barne hartzen dira, bai urtean eskainiko diren ikastaroen eta egutegiaren diseinu orokorra, bai ikastaro bakoitzari dagozkion programen diseinua.

Dena den, kontratua indarrean sartu eta lehen urtean, ez da egingo eskaini beharreko ikastaroen eta egutegiaren diseinu orokorraren zerbitzua, eta DONOSTIA KULTURAK egingo du diseinua. Lehen urte horretan, DONOSTIA KULTURAK zehaztutako ikastaroen programa zehatzak diseinatuko dira.

Lizitazio honen xedea honako lote hauetan bereizten da:

- **1. lotea: antzerki-ikastaroak, haur eta gazteentzat zein helduentzat.**
- **2. lotea: haur eta gazteentzako ikastaroak (1. loteko antzerki-ikastaroak kanpo);** gutxienez, honako gai edo diziplina hauei buruzkoak izango dira:
 - Arte plastikoak
 - Eskulanak
 - Musika eta dantza
 - Osasuna eta autoezagutza
 - Argazkilaritza
 - Giza Zientziak
 - Gizarte-gaiak
 - Hainbat gai: ingurumena, sukaldaritza eta abar.
- **3. lotea: helduentzako ikastaroak (1. loteko antzerki-ikastaroak kanpo);** gutxienez, honako gai edo diziplina hauei buruzkoak izango dira:
 - Arte plastikoak
 - Eskulanak
 - Musika eta dantza
 - Osasuna eta autoezagutza
 - Argazkilaritza
 - Giza Zientziak
 - Gizarte-gaiak
 - Hainbat gai: ingurumena, sukaldaritza eta abar.

Esleipendunek eskaini beharreko zerbitzuei dagokienez, urtean gutxienez 150 ordu izango dira 1. lotearen kasuan; urtean gutxienez 1.350 ordu izango dira 2. lotearen

kasuan; eta urtean gutxienez 3.500 ordu izango dira 3. lotearen kasuan. Gehienezkoei dagokienez, urtean 345 ordu izango dira, gehienez ere, 1. lotearen kasuan; urtean 700 ordu izango dira 2. lotearen kasuan; eta urtean 8.675 ordu izango dira, amaitzeko, 3. lotearen kasuan.

DONOSTIA KULTURAK kasuan-kasuan ikastaroan matrikulatutako pertsonen zerrenda emango dio/e enpresa lizitatzailerari/ei. Xede horretarako, DONOSTIA KULTURAREN ardura izango dira ikastaroen eta dagokien kostuaren publizitatea egiteko izapideak, matrikulatutako pertsonen matrikulazioarekin eta prezioa kobratzearekin lotutako izapideak, baita ikastaroetan egiten diren matrikulazioekin erlazionatutako izapideak ere.

Enpresa lizitatzailerak lote bat, bi edo hiruetarako eskaintzak aurkez ditzakete.

Loteak banaka esleituko dira eta gerta daiteke enpresa esleipendun bat, bi edo hiruri esleitzea bereizirik.

Lizitazio honetatik kanpo daude berariaz, Casares Kultur Etxeko irratiarekin eta telebistarekin erlazionatutako ikastaroak eta Larrotxene Kultur Etxeko bideoarekin eta zinemarekin erlazionatutakoak.

Bestalde, DONOSTIA KULTURAK eskumena du mintegi, tailer edo bestelako ikastaro jakin batzuk antolatzeko ardura bere gain hartzeko, baldin eta lantzen den edukia eta ezaugarriak direla-eta (DONOSTIA KULTURAK bakarrik erabakiko ditu kasuak), profesional edo artista jakin batek eskaini beharrekoak direla uste badu. Ikastaro horiek egilearekin edo esleipendun suertatzen diren enpresarekin edo enpresa desberdinekin kontratatuko dira, kasuan-kasuan dagokion prozedura jarraituz.

Aukera dago ikastaroak DONOSTIA KULTURAREN mendeko sozietateen instalazioetan, alegia, Victoria Eugenia, SA eta San Telmo Museoa, SAREN instalazioetan egiteko.

Kontratuaren xedea otsailaren 14ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen (SPKLTB aurrerantzean) II. Eranskinaren 24. kategorian dago sailkatuta, nahiz eta horrek ez duen esan nahi, bere balio zenbatetsia gorabehera, araupetze harmonizatuaren mende dagoenik.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratugilea DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA da (DONOSTIA KULTURA aurrerantzean).

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN lehendakaria da Kontratazio Organoa.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Prozedura ireki bidez esleituko dira kontratuak, eskaintza ekonomiko abantailatsuena egiten duen enpresa lizitatzaileraren alde, Orri honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

4. ALDAGAIK

Ez dira onartzen.

5. {KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Honako hauek izango dute kontratu izaera, esleipenaren ondoren egiten diren kontratuez gain: esleipena egingo zaionarekin sinatuko den kontratua, klausula ekonomiko eta administratiboen orri hau eta baldintza teknikoen orria.

Enpresa esleipendunak/ek aipatutako agiri guztiak sinatuko ditu/zte, kontratua/k formalizatzen d(ir)enean, guztiak onartzen ditu(zt)ela egiaztatuz.

6. IRAUPENA

Kontratua formalizatu eta biharamunean hasiko da eta 2015eko ekainaren 30a arte iraungo du, eta urtebeteko lau luzapen egin daitezke, erakunde kontratugileak berak bakarrik eskatzen badu ere.

Luzapenaren jakinarazpena kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago egingo da gutxienez eta derrigorrezkoa izango da enpresa esleipendunentzat.

Kontratuak abian jarri eta hasieran, ikastaroak bi ikasturte akademikotan eskainiko dira kasu guztietan (2013-2014 eta 2014-2015, urritik ekainera), esleipendunek kontratuetan eskaini duten eta DONOSTIA KULTURAK baimendu duen programaren arabera.

Erakunde kontratugileak kontratuak urtero luzatzea erabakitzen badu, ikastaroak 2015-2016 ikasturte akademikoan (urritik ekainera), 2016-2017 ikasturte akademikoan (urritik ekainera) eta 2017-2018 ikasturte akademikoan (urritik ekainera) eskainiko dira, hurrenez hurren, eta kasu honetan ere, esleipendunek kontratuetan eskaini duten eta DONOSTIA KULTURAK baimendu duen programaren arabera egingo da.

7. LIZITAZIOKO GEHIENEZKO PREZIO UNITARIOAK ETA KONTRATUEN BALIO ZENBATETSIA

Enpresa lizitatzailleek ordu bakoitzari dagokion prezio unitarioa adieraziko dute proposamen ekonomikoan. Xede horretarako, **gehienezko prezio unitarioa, BEZa kanpo, 35 €/ordua da.**

Gehienezko prezio unitarioak murriztu ditzakete enpresa lizitatzailleek beren proposamen ekonomikoetan. Edozein kasutan, ezin dira prezio altuagoak eskaini. Prezio horiek gainditzen dituzten guztiak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

Prezio unitarioaren barruan programak diseinatzeko zerbitzuaren prezioa barne hartuta dagoela ulertuko da.

Hala ere, prezio unitarioak ez du barne hartzen ikastaroa eskaintzeko erabiliko den materialaren kostua. Kasu horretan, DONOSTIA KULTURAREN berriazko baimena beharko da eta enpresa esleipendunak materiala eskuratzeko izandako kostuaren parekoa izango da. Kostu hori behar den bezala justifikatuko da DONOSTIA

KULTURAREN aurrean, ordaindu aurretik zein ondoren. Aipatutako baldintzak betetzen badira, fakturatu eta DONOSTIA KULTURAK ordainketa egingo du.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoari kalterik egin gabe, enpresa lizitatzailleek eskaintako prezio unitarioan kontratuaren xedea den zerbitzua eskaintzeko beharrezko gastu guztiak barne hartuko dira, betiere Orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian adierazten denaren arabera. Ez da a posteriori onartuko aldeztu aurretik azken prezioan barne hartu ez diren kontzeptuengatik fakturaziorik.

Enpresa lizitatzailleek eskaintzen duten prezio unitarioaren barruan ulertzen dira zerbitzuek berezkoak dituzten kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak eskaintzeko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldadak eta Gizarte Segurantzaren, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauzez eta jai-egunetan egiten diren lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak eta abar), bai eta zergak (BEZa kanpo), aseguruak, lizentziak, garraio-gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

Enpresa lizitatzailleek eskaintako prezioetan sartuta egongo dira, halaber, zerbitzua eskaintzeko enpresa kontratugileak/ek erabili behar dituzten baliabide, erreminta, ibilgailu, ekipo, tresna, ekipo informatiko eta lanabesak, lehen aipatu ez direnak.

Enpresa lizitatzailleek kontu sail independente batean adieraziko dute DONOSTIA KULTURAK jasan beharko duen BEZa.

Enpresa esleipendunak/ek ordainduko ditu/zte Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren deialdiaren iragarkia argitaratzearen ondoriozko gastuak eta kontratuak formalizatzean sortzen direnak.

SPKLTBren 88. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hau da kontratuaren balio zenbatetsia, loteka (BEZa kanpo) eta **izan daitezkeen luzapenak barne hartuta:**

1. lotea: antzerki-ikastaroak, haur eta gazteentzat zein helduentzat. **72.450 euro.**

2. lotea: haur eta gazteentzako ikastaroak (1. loteko antzerki-ikastaroak kanpo); gutxienez, Orri honen **1. Klausulan** adierazitako gaiei buruzkoak izango dira: **147.000 euro.**

3. lotea: helduentzako ikastaroak (1. loteko antzerki-ikastaroak kanpo); gutxienez, Orri honen **1. Klausulan** adierazitako gaiei buruzkoak izango dira: **1.821.750 euro.**

Balio zenbatetsi hori SPKLTBren 88.5 a) artikulua arabera kalkulatu da. Hau da, kontuan hartu da aurreko hamabi hilabeteetan balio beragatik esleitutako antzeko kontratuen benetako balioa, kontratua hasi eta ondorengo hamabi hilabeteetarako aurreikusitako kantitateen aldaketen arabera egokituta, eta kontratuak irauten duen denbora guztian luzatu da, luzapenak barne hartuta.

Balio zenbatetsi horren barruan dago, halaber, enpresa esleipendunak aurreko paragrafoan adierazitako epe berean fakturaturako materialen prezioa.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Hilero egingo da prezioaren ordainketa, zerbitzua jaso eta gero eta DONOSTIA FAKTURAK dagokion faktura onartu eta gero.

DONOSTIA KULTURAK eskaintzen dituen zerbitzuengatik hilero ordainduko den prezioa, zinez eskaintako zerbitzuei eskaintako prezio unitarioen gainean aplikatzearen emaitzazkoa izango da.

Bestalde, kasuan-kasuan hilean eskaintako ikastaroan erabiltzen diren materialen prezioa ordainduko da, betiere alde aurretik DONOSTIA KULTURAK baimendu baditu.

Enpresa kontratugileak/ek faktura hilero luzatuko beharko du/te, kasuan-kasuan dagokion hilabetea amaitu eta hurrengo hilabeteko 15. eguna baino lehen. Fakturan eskaintako zerbitzuen banakapena adieraziko da, eta fakturatutako materialen kostuaren justifikazioa gaineratuko da, alde aurretik aurkeztu ez bada.

DONOSTIA KULTURAK eskaintako zerbitzuen eta erabilitako materialen prezioa ordainduko du, zerbitzuak eskaini diren hilabetea amaitu eta hogeita hamar egun naturaleko epean, betiere faktura luzatu bada lehen aipatutako epean eta DONOSTIA KULTURAK ontzat eman badu alde aurretik.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Eskaintako prezio unitarioa urtero berrikusiko da, kontratua formalizatu eta lehenengo urtea pasa eta gero, eta Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumorako prezioen indizearen edo horren ordezkotako indizearen aldaketaren % 85 aplikatuko da.

Lehen azterketa egingo da oinarri gisa enpresa kontratugileak/ek eskaintako prezioa erabilia; ondorengo urteetarako, berriz, aurreko azterketaren emaitzazko prezioa erabiliko da.

10. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratuen esleipena DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratuen formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Profil hori honako web-orri honetan dago: www.donostiakultura.com.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuen enpresa esleipendunak/ek behin betiko berme bakar eta orokor bat eratuko du/te erakunde kontratugilearen alde, bere gain hartutako betebeharrak beteko ditu(zt)ela ziurtatzeko. Berme hori kasuan-kasuan dagokion lotearen guztizkoaren balio zenbatetsiaren % 5ekoa izango da, BEZa kanpo.

Aipatutako erakunde kontratugileak eskaera egiten badu, berme hori diru bihurtuko da.

Eskaintza ekonomiko abantailatsuen aurkezten du(t)en lizitatzailerak/ek hamar egun baliodun edukiko ditu/zte aipaturako bermea eratzeko, Kontratazio Organoaren eskakizuna jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTBren 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan osa daiteke bermea.

Eskudirutan egiten bada, 2101 0381 0300 1001 7077 Kutzako kontu korrontean egingo da.

Abal moduan eratzuz gero, baldintza orri honi **I. Eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren arabera izango da.

Bermea SPKLTBren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme epea igaro ondoren eta enpresa kontratugileak/ek kontratuko betebeharrak guztiak bete dituztenean.

Bermea itzultzeko erakunde kontratugileak aldeko txostena eman beharko du.

Behin betiko bermearen gainean enpresa kontratugileari/ei eska dakizkiokeen/ekeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, enpresa kontratugileak/ek bermea berrezarri edo handitu beharko du/te, dagokion zenbatekoan. Haien gauzatu eta 15 egun balioduneko epea izango du/te eta, hala egin ezean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuen aldaketaren baten ondorioz, horien prezioa aldatzen bada, behin betiko bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Hamabost egun naturaleko epea utziko da bermea egokitzeko, enpresa kontratugileari/ei aldatzeko erabakia jakinarazten zaion/zaiei unetik hasita.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. GAITASUN BALDINTZAK

DONOSTIA KULTURArekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatzeke debekurik ez duten eta behar adinako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela frogatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoak.

Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuen zehaztapen teknikoak edo prestaketa-dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia librerako murrizketak eragin baditzake edo gainerako enpresa lizitatzailerakiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

Enpresa lizitatzailerak, halaber, kontratuen xede diren zerbitzuak gauzatzeko eska daitezkeen gaikuntza profesionala edo enpresa-gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da kontratuaren zerbitzuak haien estatutuen edo eratzeko arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo esparruaren barruan egotea.

Nolanahi ere, DONOSTIA KULTURArekin kontratatzeko ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatueta enpresa ez-espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan-kasuan zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Espresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan-kasuan zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunekoak ez diren estatueta pertsona fisikoen edo juridikoen kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-esparruko kontsuletzeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBren 3. artikuluan adierazitako enpreko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

DONOSTIA KULTURArekin kontratatu ahal izango dute horretarako aldi baterako erabazten diren enpresaburuen elkarteak. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Enpresa lizitatzailerik kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesional hau eduki behar dute:

- Lizitatu den lote bakoitzaren kasuan, azken hamar urteetan kasuan-kasuan xedearren antzeko ezaugarriak dituzten ikastaroak (mota, zentroen dibertsitatea eta abar) eskaintzeko bi kontratazio egin izana ziurtatzea.

Kontratua sinatzeko lehen aipatutako beharrezko kaudimena egiaztatzeko, beste erakundeen kaudimenean oinarritu nahi duten enpresa lizitatzailerik, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa edozein dela ere, Notario aurrean emandako idatzia aurkeztu beharko dute (**VI. eranskinean** jasotako ereduaren arabera). Bertan, esku hartzen du(t)en enpresak/ek honakoa adieraziko du(te): lizitatzailerik parte hartzen duen lizitazioaren baldintzen eragina ezagutzen dutela; aipatutako kaudimena dutela ziurtagiria aurkeztu behar da, **13. Klausulan** adierazten den moduan; eta aipatutako enpresa lizitatzailerik esleipendun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak uzteko borondate ezeztazina (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuko dute, eta bitartekorik ordezkatu edo aldatu behar bada, Administrazioak berariaz baimendu beharko du). Idatzia aurkezteak adierazi nahiko du DONOSTIA KULTURAK konpromiso horiek bere gain hartzen dituela, baldin eta enpresa lizitatzailerik hori esleipendun suertatzen bada.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzailerik baldintzarik gabe onartzen dituela Orri hau, Baldintza Teknikoen Orri osoa eta kontratuari lotutako gainerako dokumentazioa, inongo salbuespenik gabe.

Orri hau eta Baldintza Teknikoen Orria kontratugilearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako webgune honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan aztertu ahal izango da (Konstituzio Plaza, 1 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, iragarkia kontratugilearen profilar argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailerik **HIRU GUTUN AZAL ITXI aurkeztuko dituzte (A, B eta C) DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN bulegoetan** (Konstituzio Plaza, 1 20003 Donostia), erregistro-ordutegiaren barruan (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; udan 9:00etatik 13:30era) **(A gutun-azala salbuespena da, bakarria izan baitaiteke enpresa lizitatzailerik bi edo hiru loteetara aurkezten bada)**, horretarako GAAN, BOEN eta EBAON argitaratzen den lizitazio-iragarkian ezarritako epearen barruan. Gutun-azal horietan beranduago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute eta guztietan jarriko dute xede den kontratazioa, lizitatzen den lotea, enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izena eta abizenak eta izaera, telefono-zenbakia eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, Orri honen **II. Eranskineko** ereduaren arabera.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jai-eguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Denbora-muga hori ez da ezarriko proposamenak postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan egin daiteke aurkezpena, betiere ondoren datorren atalean adierazitako baldintzak betetzen badira.

Enpresa lizitatzailerik proposamena postaz bidaltzen baldin badute, bidali duten eguna egiaztatu beharko dute postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali dutela adierazi beharko diote DONOSTIA KULTURARI egun bereko telex, fax edo presako telegrama bidez (ondorengo zenbakira:(943 48 11 89) edo egun berean presazko telegrama bat bidaliz.Proposamena bidali izana posta elektronikoen bidez ere adierazi ahal izango da (donostiakultura@donostia.org).Posta elektronikoen bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da argi jasota egotea bai bidali izana eta bai jaso izana, bai datak eta bai komunikazioen eduki osoa.

Halakoetan, kopia bat inprimatu, eta erregistratu egin beharko da, gero espedienteari eranstea.

Baldintza horiek betetzen ez badira edo bidali izanaren jakinarazpena proposamenak hartzeko ezarritako epea eta ordua igaro ondoren iristen bada, eskaintza ez da onartuko.

Dena den, adierazitako egunaren ondorengo 10 egun natural igaro eta proposamena hartu ez bada, ez da inola ere onartuko.

Gutun-azal bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua izango du.

A gutun-azala. "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

Donostia Kultura

Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia-San Sebastián

tel (0034) 943 481 150 • faxa 943 481 189 • donostiakultura@donostia.org



Enpresa lizitatzailleek kontratatzeke gaitasuna ziurtatzeko gutun-azal bat aurkeztuko dute, honako agiri hauekin: **Bi edo hiru loteetarako eskaintzak aurkezten dituzten enpresa lizitatzailleek gutun-azal bakar bat aurkez dezakete.** Kasu horretan, honako dokumentazio hau erantsi behar dute.

1. Enpresa lizitatzailleak eta, hala badagokio, bere ordezkariak, jarduteko gaitasuna duela ziurtatzen duten agiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko ahalmena frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: eratzearen eskritura edo dokumentua, estatutuak edo fundazio egintza, jarduerak bete beharreko arauak jasotzen dituztenak, dagokien erregistro publikoan inskribatuak, kasuan-kasuan pertsona juridiko motaren arabera.

- Europar Batasuneko estatuetakoen enpresaburu ez espainiarren jarduteko ahalmena frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiria, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

- Gainerako enpresaburu atzerritarren kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-esparruko kontsuletzeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBren 3. artikuluan adierazitako enpreko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko ahalmena frogatzeko Nortasun Agiri Nazionala aurkeztuko dute, edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da.

- Besteren izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek nortasun agiri nazionalaren kopia eta horretarako behar besteko ahalordea aurkeztuko dute. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da dagokion boterea, betiere Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuek elkarte eratzten edo eratuko dutenen izenak eta ezaugarriak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahalduen bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahalduen horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handi samarreko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

2. SPKLTBren 60. artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen lizitatzaillearen aitortpen erantzulea, **III. Eranskinean** azaltzen den ereduaren arabera.

Enpresa lizitatzailleak indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen aitortzen erantzulea barne hartuko da. Eskaintza ekonomiko abantailatsuena egiten duen lizitatzailleak aipatutako baldintza betetzen duela ziurtatuko du, eta horretarako 10 egun balioduneko epea edukiko du, DONOSTIA KULTURAK xede horrekin bidaltzen dion jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

3. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzeko dokumentuak, **12. Klausulan** aurreikusitakoaren arabera:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala ondoren adierazitako moduan ziurtatuko da, betiere **VIII. Eranskin** gisa erantsitako ereduaren arabera:

Azken hamar ekitaldi itxietan eskainitako zerbitzuen zerrenda itxi bat. Bertan adieraziko dira zenbatekoa, datak eta hartzailea (publikoa edo pribatua).

Modu osagarrian, lizitatzailleek aipatutako zerbitzuak eskaini direla ziurtatzen duten ziurtagiriak edo dokumentuak aurkeztuko dituzte.

Hala badagokio, adierazpenen gutuna aurkeztuko da, enpresa lizitatzailleak eskatzen den kaudimena duela edo kontratura gutxieneko giza bitartekoak atxikitzeko konpromisoa beteko duela ziurtatzeko, **VI. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

5. Enpresa atzerritarrek Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioa onartzen dutela adierazten duen berariazko aitortpena aurkeztu behar dute, kontratua garatzen zuzenean zein zeharka izan daitezkeen gorabehera guztietarako; edozein kasutan, uko egiten zaio lizitatzailleari dagokion foru atzerritarrari.

6. Jakinarazpenak jasotzeko lehenetsuneko bitartekoa aukeratzea, Orri honen **II. Eranskineko** ereduaren arabera.

7. Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzen direla ziurtatzen duen aitortzen erantzulea, **V. Eranskinaren** arabera.

Oharrak:

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko kontratugileen erregistro ofiziala arautzen duen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako kontratugileen erregistroan inskribatuta dauden enpresa lizitatzailleek, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, 1. atalean aipatutako dokumentazioaren orde.
- (ii) DONOSTIA KULTURAK eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko
- (iii) Atzerriko enpresek dokumentazio guztiaren gaztelaniarako edo euskararako itzulpen ofiziala aurkeztuko dute.

B gutun-azala. "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Enpresa lizitatzailleek gutun-azal bat aurkeztuko dute proposamen teknikoarekin batera, **lote bakoitzerako gutun-azala independente batean**, dokumentu hauekin:

Memoria teknikoa, honako alderdi hauek barne hartuta:

- Ikastaroen programa orokorraren ariketa simulatua, baita ikasturte baterako ikastaroen programa zehatzak ere.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira Baldintza Teknikoen Orriko 2. Klausulan aurreikusitako irizpideak (eskaintza egingo den Kultur Etxea eta bere espezialitateak, herritarren lehentasunak eta beharrak, gaien arteko oreka, eskaintza egiteko hizkuntzak eta abar).

Modu berean, ikastaroen programa zehatzetan Baldintza Teknikoen 2. Klausulan barne hartutako alderdiak adieraziko dira, eta, hala badagokio, ikasturte amaierako jarduerak, ikastaroetako partaideen gutxieneko eta gehienezko kopurua, egin beharreko balorazioak eta ebaluazioak eta abar.

Ariketa simulatu hori ez da loteslea izango.

- Laneko metodologia eta plana, honako alderdi hauek barne hartuta:
 - ✓ Jarraikotasun-planak baja, opor eta abarretarako.
 - ✓ Kontratuaren pertsona arduradunaren berriazko aipamena.
 - ✓ Enpresak zerbitzua eskaintzeko erabilgarri dituen eta kontratua gauzatzeko atxikiko dituen baliabide materialak.
 - ✓ Balorazio-irizpideen ikuspegitik interesgarritzat jo daitekeen beste edozein agiri gehitu daiteke.
- Barruko ebaluazio-prozesuak, kontratua gauzatzean aplikatzekoak.

Gutun-azal honen dokumentazioa jatorrizkoa edo kopia sinplea izan daiteke. Hala ere, DONOSTIA KULTURAK, eskaintzak baloratzeko orduan, enpresa lizitatzailleei jatorrizkoak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatzeko.

Ez da baloratuko gutun-azal honetan eskatzen diren elementu guztiak ez dituen eskaintzarik.

C gutun-azala – "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Enpresa lizitatzailleek proposamen ekonomikoa aurkeztuko dute (lote bakoitzerako bat) eta proposamen hori Orri honen **IV.D Eranskin**eko ereduaren arabera izango da.

Lote bakoitzaren kasuan, proposamen ekonomikoa makinaz idatzita aurkeztuko da, eranskinik, zuzenketarik edo ezabaketarik gabe. Dokumentu horietan aldaketarik, hutsunerik edo akatsik egotea proposamena atzera botatzeko arrazoia izan daiteke.

DONOSTIA KULTURAK, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, A, B eta C gutun-azaletan aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du. Enpresak aurkeztutako datuetan edo zirkunstantzietan faltsutasunik aurkitzen bada, kontratua baliogabea izan daiteke, enpresa kontratugileari/ei egozteko moduko arrazoien ondorioz kontratua ez betetzeagatik.

Behin kontratuak esleitu eta urtebeteko epea amaitzen denean, DONOSTIA KULTURAK enpresa lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake, baldin eta lizitatzailleek ez badute jaso.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio-irizpideak, garrantzi handienekotik txikienekora antolatuta, honakoak dira:

1. Proposamen teknikoa: 70 puntu arte.

- Ikastaroen programa orokorraren ariketa simulatua, baita ikasturte baterako ikastaroen programa zehatzak ere: 40 puntu
- 13. Klausulan adierazitako alderdiak barne hartzen dituen lanerako metodologia eta plana: 20 puntu
- Barruko ebaluazio-prozesuak, kontratua gauzatzean aplikatzekoak: 10 puntu

2. Proposamen ekonomikoa: 30 puntu arte.

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak honako formula honen bitartez baloratuko dira:

$$P = 30 \times \frac{\text{Gutxieneko eskaintza}}{N \text{ eskaintza}}$$

Esanahia:

P= Baloratzen ari den lizitatzailleak lortutako puntuazioa.

Gutxieneko eskaintza = eskaintza txikienaren zenbatekoa.

N eskaintza = baloratzen ari diren eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.

Formula hori aplikatuko zaio lote bakoitzean eskaintako prezio bakoitzari.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- DONOSTIA KULTURAKo Kontratazioko ordezkari bat.
- DONOSTIA KULTURAKo Kultur Ekintzako bi ordezkari.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak A gutun-azaleko ("Kontratatze gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, garaiz eta taxuz. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik edo ez-egiterik antzeman ez gero, hiru egun balioduneko epea utziko da, gehienez ere, enpresa lizitatuak akats edo ez-egite horiek konpontzeko.

Ondoren B gutun-azala irekiko da. Bertan gordetzen da proposamen teknikoak, eta beraren azterketa eta balorazioa egingo da.

C gutun-azaleko proposamen ekonomikoaren irekiera publikoki egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaie onartutako lizitatuak guztiei, **II. Eranskinaren** arabera jakinarazpenak egiteko aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Kontratugilearen profilean argitaratuko da guztia (www.donostiakultura.com) 48 ordu lehenago.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren enpresa lizitatuak, betiere horrela egiteko eskatzen badute.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitzean, proposamenak aztertu eta baloratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO aurrerantzean) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoietan nahastuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztu diren proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, handienetik txikienera sailkatuak, eta **14. Klausulan** ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Era berean, ekonomikoki eskaintza abantailatsua zein den adieraziko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamena txosten juridikoaren helburu izango da.

Ebaluazio Batzordeak proposamen ekonomiko abantailatsua identifikatzeak ez du eskubiderik sortzen proposatutako enpresa lizitatuak(en) alde.

17. KONTRATUAK ESLEITZEA

Esleipenerako enpresa lizitatuak/k aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu behar du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio/e eskaintza ekonomiko abantailatsua egin du(t)en enpresa lizitatuak/ari, eta lizitatuak/ek hamar egun balioduneko epea edukiko du/te aurkezteko, horretarako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzen duten agiriak.

Esleipendunak EJZn, kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela frogatu beharko du. Horretarako, alta-agiria aurkeztu beharko du, une horretako ekitaldiari baldin badagokio, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Nolanahi ere, zerga horren izen ematean baja hartu ez izana adieraziko duen aitorten erantzulea gaineratu beharko da.

- Kontratua gauzatzeko hitz emandako baliabideak benetan esleitu izanaren egiaztagiriak.
- Orri honen **11. klausulan** aurreikusitako behin betiko bermea osatu dela ziurtatzen duen frogagiria.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkiak argitaratzeagatik sortutako gastuak ordaindu izana ziurtatzen duen egiaztagiria. Enpresa esleipendun bat baino gehiago egonez gero, faktura proportzionalki banatuko dute, bakoitzari esleitutako loteen balio zenbatetsiaren arabera.
- Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkartearen lege-sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa-elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratuak iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

Eskatutako guztia epearen barruan betetzen ez bada, enpresa lizitatuak/ek bere/n eskaintza atzera bota du(t)ela ulertuko da; kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio/e hurrengo enpresa lizitatuak/ari/ei (eskaintzen sailkapenaren arabera aukeratuko dira lizitatuak).

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena adostuko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bi hilabeteen barruan eta proposamenak irekitzen diren egunetik gehienez ere bi hilabete epean.

Esleipena ebatzen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak, eta lizitatuak/eei jakinaraziko zaie, Orri honen **II. Eranskin**eko ereduaren arabera eta, aldi berean, DONOSTIA KULTURAKO kontratugilearen profilean argitaratuko da.

18. KONTRATUAK HOBETZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratuak formalizatzean hobetuko dira.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da hamabost egun balioduneko epearen barruan, lizitatuak/eei eta enpresa esleipendunari/ei esleipenaren jakinarazpena bidali eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Enpresa esleipendunak/ek, halere, kontratuak eskritura publiko bilakatu daitezkeen eskatu ahal izango du/te; kasu horretan, bere/n kontura izango dira sortutako gastuak.

Kontratuen formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da. Argitalpena kontratua esleitzen denetik berrogeita zortzi egun naturaleko epean egingo da, gehienez ere.

Enpresa kontratugile(ar)en kontura izango d(ir)a Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontratuen formalizazioaren iragarkiak argitaratzeagatik sortutako gastuak. Enpresa

kontratugilea bat baino gehiago egonez gero, faktura proportzionalki banatuko dute, bakoitzari esleitutako loteen balio zenbatetsiaren arabera.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko erabakiak eta jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko bat edo juridiko bat izan daiteke, DONOSTIA KULTURAREN barrukoa edo kanpokoa.

Enpresa kontratugileak/ek nahitaez beteko ditu/zte kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

20. KONTRATUAK GAUZATZEA

Hain zuzen ere, jarraian adierazi dira kontratuak gauzatzeko kontuan hartuko diren baldintzak:

- Kontratuak enpresa kontratugile(ar)en arriskuz eta ausaz gauzatuko dira.
- Kontratuak gauzatzeko kontuan hartuko dira kontratuen edukia eta baldintzak, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orria, Baldintza Teknikoen Orria eta enpresa kontratugileak/ek aurkeztutako eskaintza/k, eta DONOSTIA KULTURAK ematen dituen jarraibideen arabera egingo da.
- DONOSTIA KULTURAK kontratu betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar den bezala gauzaten direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, DONOSTIA KULTURAK egokitzat jotzen dituen kanpo laguntzak jasoko ditu, kontratu betebeharrak behar den bezala betetzen direla egiaztatzeko edo ikuskaritza egiteko, bai eta lana kalitate maila egokiarekin garatzen dela egiaztatzeko ere.

Enpresa kontratugileak/ek DONOSTIA KULTURAK zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion/en datu guztiak aurkeztuko ditu/zte, beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du/te, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du/te.

Enpresa kontratugileak/ek ez du/te oztoporik jarriko DONOSTIA KULTURAK egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.

- Enpresa kontratugileak/ek zerga esparruan eta lan esparruan indarrean dauden xedapenak beteko ditu/zte, bai eta Gizarte Segurantza eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren esparruan indarrean daudenak ere, zerbitzua gauzatzeko erabiliko diren langileei dagokienez. Xede horrekin, langileek esparruan beharrezkoak dituzten prestakuntza ikastaroak eskainiko ditu.

Enpresa kontratugile(ar)en ardura da, halaber, langileek segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorretan indarrean dagoen araudia betetzen dutela eta Kontratazio Organoak funtzionamendu orokorrerako ezar dezakeen araudia betetzen du(t)ela ziurtatzea.

Langile guztiak enpresa kontratugile(ar)en mendekoak dira. Enpresa kontratugile(ar)enak dira bere enpresa izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio DONOSTIA KULTURARI erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Enpresa kontratugilea/k izango d(ir)a arduradun bakarra/k zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileekin -langile propioekin edo noizean behinka azpikontratitzen direnekin- lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). DONOSTIA KULTURAK ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga-esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, enpresa kontratugileak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrei dagokienez. Modu berean, enpresa kontratugileak/ek bere/n gain hartuko ditu/zte zerbitzua eskaintzean gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

- Kontratugileak/ek 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak eta Datu Pertsonalak Babesteko denak (DBLO aurrerantzean), eta berau garatzeko araudiak ezarritako betebeharrak beteko ditu/zte, datu pertsonalik erabiltzen badu. Hala izanda, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak, bere jardueren esparruan, egiten duen datu pertsonalen edozein tratamendu, eta tratamendu horren Arduradun den aldetik, bere kontura eta bere erabakiz egiten duela ulertu behar da, Orri honen **22. klausulan** berariaz ezartzen dena kontuan hartu gabe.
- Kontratugileak/ek lana ondo eta kontratuetan hitzartutako epeen barruan egiteko beharrezkoak diren tresneria eta bitarteko osagarriak jarri beharko ditu/zte, eta bere/n betebeharrak betetzeko behar ditu(zt)en langileak kontratatu beharko ditu/zte. Kasu horretan, lanaren eta segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu/zte beren ardurapeko langileekin.
- Enpresa kontratugileak/ek DONOSTIA KULTURARI ziurtatuko dio/te kontratatutako zerbitzua eskaintzeko edozein euskarritan erabiltzen du(t)en material didaktikoaren gainean nahikoa eskubide du(t)ela, eta, bereziki, DONOSTIA KULTURAK antolatutako ikastaro eta tailerretan material horiek erabiltzeko Jabetza Intelektualaren gaineko eskubideak ditu(zt)ela.

Enpresa kontratugilea/k da/dira jabetza industrial eta intelektualarekin lotuta egiten den erreklamazio orenen erantzule, eta kontzeptu horiek direla-eta ondoriozta daitezkeen kalte eta galerengatik kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio/te DONOSTIA KULTURARI.

21. OINARRIZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Honakoak oinarrizko kontratu-betebeharrak:

- Kontratuak betetzea, bertako klausuletan, aplikazio-orrietan eta DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratugileari/ei emandako barne-aginduetan ezarritakoa zorrotz gauzatuta.
 - Kontratuak gauzatzeko hitzartutako bitartekoak atxikitzea kontratuetera.
 - Kontratuaren arduradunak eta DONOSTIA KULTURAKo langile teknikoek emandako jarraibideak betetzea eta kontratuak DONOSTIA KULTURAREkin modu koordinatuan gauzatzea.
 - Zerbitzua behar den bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak lortzea. Era berean, enpresa kontratugileak/ek bere/n gain hartuko ditu/zte kontratua betetzeko gauzatu behar ditu(zt)en gastuak, bai eta jarduera gauzatzeagatik dagozkion/en tasa eta zerga mota guztiak ere; halaber, bere/n gain hartuko ditu/zte kontratua indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzeagatik ondoriozta daitezkeen betebeharrak guztiak.
 - Orri honen **11. Klausularen** arabera, behin betiko bermea eratzea.
 - Lan esparruan indarrean dauden lege xedapenak betetzea (hitzarmen kolektiboa, ordainketak, eta abar), bai eta Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren esparrukoak ere. DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik edukiko aipatutako araudiak urratzen badira.
 - Grebarik badago, zerbitzuak betetzea. Zerbitzuak bermatzea ezinezkoa bada, DONOSTIA KULTURAK ahalmena du zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko; kasu horretan, fakturaziotik kenduko da kontratu horiei dagokien kopurua.
- Greba-garaian benetan eskainitako zerbitzuei dagozkien prezioa baino ez da ordainduko.
- Langileak ordezkatzeko, betetzen duten funtzioa eta denbora edozein dela, dagokien lana behar bezalako ardura eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak eskaintzean ardura nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. DONOSTIA KULTURAK eskaera egin eta gehienez ere 72 orduko epean egingo dira ordezkapenak. Langileak ordezkatzeko DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik hartzen bere gain, enpresa kontratugileak/ek eragindako langileekin ditu(zt)en harremanei dagokienez.
 - Langileak ordezkatzeko gaixotasun, opor, baimen, istripu, eta abarregatik izaten diren bajak estaltzeko, betiere kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean eskainiz. Gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean egingo da.
 - Kontratuak behar den bezala garatu eta betetzeko DONOSTIA KULTURAK beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak eskaintzea, ordainketa gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe. Betebeharrak hori bermealdiak irauten duen bitartean edo kontratuak amaitu arte mantenduko da, hala badagokio.

Klausula honetan barne hartutako betebeharrak kontratu betebeharren izaera izango dute SPKLTBren 223 f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Horiek

urratzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke, DONOSTIA KULTURAK nahi badu.

- Enpresa kontratugileak ezar daitezkeen eta indarrean dauden arau guztiak errespetatuko ditu. Bereziki, Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legea, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzkoa, eta Donostiako Udalaren 2008-2013 Berdintasunerako II. Plana. Halaber, jarduera guztiak Euskararen Normalkuntzarako 10/82 Oinarrizko Legearen esparruan garatuko dira, bai eta Donostiako Kulturaren Euskararen Erabileraren Normalkuntza Planaren arabera ere.

22. DATUEN BABESA

Zerbitzuen edukia kontuan hartuta, kontratazioaren xede diren zerbitzuak eskaintzeko enpresa kontratugileak/ek fitxategietako datu pertsonalak erabil ditzake/te. DONOSTIA KULTURA da fitxategi horren tratamenduaren arduraduna.

Testuinguru horretan, DBLOren arabera, enpresa kontratugileak/ek, tratamenduaren arduradun gisa, obligazioa du/te DONOSTIA KULTURArekin datuak eskuratzeko dagokion kontratua hitzartzeko, DBLOren 12. artikuluan eta 1720/2007 Errege Dekretuaren, abenduaren 21ekoa eta DBLO garatzeko araudia onartzeko denaren 20. artikuluan adierazten den edukia eta eragina barne hartuta.

Datuak eskuratzeko kontratu hori/ek aldeek lizitazio honen xede d(ir)en kontratua/k sinatzen d(ir)en uanean hitzartzeko d(ir)a eta eranskin gisa aurkeztuko dira.

Edozein kasutan, eta datuak eskuratzeko kontratu(et)an ezartzen dena alde batera utzita, enpresa kontratugileak/ek konpromisoa hartzen du/te kontratazio honen xede diren zerbitzuak eskaintzeagatik sortzen diren obligazioak betetzeko, DBLOn eta berau garatzeko araudian ezarritakoaren arabera.

23. IRUDI ESKUBIDEAK ETA JABETZA INTELEKTUALA

Kontuan hartuta lizitazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzean DONOSTIA KULTURAK eta/edo enpresa kontratugileak/ek, irudiak bideo-kamerekin eta/edo beste antzeko bitarteko tekniko batzuekin grabatu ditzake(t)ela, ezinbestean DONOSTIA KULTURArekin batera lan egingo da, aipatutako zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonak grabaketak onartzeko eta DONOSTIA KULTURari berariazko baimena emateko (i) irudia eta ahotsa erabiltzeko; eta (ii) gaur egun erabiltzen diren bitarteko tekniko guztien bitartez erreproduzitzeko, betiere DONOSTIA KULTURAK bete nahi dituen helburuak garatzen laguntzeko bada.

Edozein kasutan, DONOSTIA KULTURA izango da titular bakarra, aurreko paragrafoetan adierazitako ikastaro eta tailerren zerbitzuen esparruan sortutako ikus-entzunezko materialaren gaineko Jabetza Intelektualaren ondare-edukiaren eskubideei dagokienez. Zentzu horretan, DONOSTIA KULTURAK mundu guztiari lagako dio, izaera eskusiboarekin eta dohainik, legeak ezartzen duen gehieneko epean, horiek erabiltzeko eskubidea, erreproduzitzeko eskubidea eta osorik edo zati batean zabaltzeko eskubidea.

24. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA

Esleipenaren publizitateari dagokionez eta enpresa lizitatzaleei eman beharreko informazioari dagokionez Orri honetan xedatzen denaren kalterik gabe, DONOSTIA KULTURAK ezin izango du zabaldu enpresa lizitatzaleek konfidentziazat jo duten informazioa, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik duenean.

Enpresa kontratugileak/ek, bere/n aldetik, kontratuak gauzatzeko eskuratzen du(t)en informazioaren konfidentziasuna gordeko du/te, baita Orrietan izaera hori ematen zaion informazioa eta berez konfidentziala dena ere.

Konfidentziasuna betirako gorde behar da.

Modu osagarrian, eta DBLOn aurreikusitakoarekin bat eginez, DONOSTIA KULTURAREN eta/edo tratamenduaren arduradun gisa erlazionatzen den bestelako erakunde batzuen datu pertsonalen tratamenduan parte hartzean, enpresa kontratugileak/ek eta bere/n langileek obligazioa hartzen du/te datuekiko sekretu profesionala gordetzeko eta isilpean gordetzeko.

25. ZIGORRAK

Enpresa kontratugilea/k, berari/beraiei egotz dakizkio(e)keen arrazoiengatik, proposatu duten/dituzten ikastaroen programetan adierazitako epearekiko atzeratzen bad(ir)a, DONOSTIA KULTURAK aukera izango du, nahi bezala, kontratua suntsiarazteko, **32. Klausulan** adierazitako terminoetan, edo gauzatzen jarraitzeko erabaki dezake. Azken kasu horretan, kasuan-kasuan loteari dagokionez zenbatetsi den balioaren 1.000 euro bakoitzeko eguneko 0,20 euroren proportzioan.

Gauzatze akastuna egin bada edota beste edozein kontratu-baldintza urratzen bada, eta kalte galerei eta Klausula honetan aurreikusitako ondorioei kalterik egin gabe, kasuan-kasuan loteari dagokionez zenbatetsi den balioaren 1.000 euro bakoitzeko eguneko 0,20 euroren proportzioan.

Zigor horiek metagarriak izango dira zinez eragindako kalte eta galerei dagokienez.

Kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, eta ez-betetzeak iraun bitartean, DONOSTIA KULTURAK edozein unetan utz dezake indarrrik gabe kontratua, lehen adierazitako ondorioekin.

Zigorak gauzatzeko, kenkariak egingo dira enpresa kontratugileari/ei ordaindu beharreko kopuruan, eta, hori ezinezkoa bada, behin betiko bermearen gainean. Kasu horretan, behin betiko bermeaz gaineko kopurua erreklamatu egingo da.

Edozein modutan, kontratua bertan behera utzi zein jarraitu erabaki, DONOSTIA KULTURAK egokitzat jotzen duen denboran hirugarrenen bitartez zerbitzua eskaintzen jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, enpresa kontratugileak/ek ordainduko du/te jarraipen horren kostua, kalte galerei eta Klausula honetan aurreikusitako ondorioei kalterik egin gabe.

26. KONTRATUAK LAGATZEA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati utzi ahal izango zaizkio baldin eta DONOSTIA KULTURAK aurretiazko baimena ematen badu, zehazki eta idatziz. Edonola ere, lagapen-hartzaileak lege-betebeharrak eta baldintza-orri honetan DONOSTIA KULTURAREkin kontratuak egiteko eskatzen diren

betebeharrak bete beharko ditu, ez du kontratatzeko debekurik izango. Gainera, bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko du, eta, baldintza-orri honetan aurreikusitako baliabideen esleipena bete beharko du. Horrela egingo du lagapenaren xede diren eskubide edo betebeharrei dagokienez.

27. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati utzi ahal izango zaizkio baldin eta DONOSTIA KULTURAK aurreitiazko baimena ematen badu, zehazki eta idatziz. Edonola ere, enpresak/ek lege-betebeharrak eta baldintza-orri honetan DONOSTIA KULTURAREkin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu/zte eta ez du/te kontratatzeko debekurik izango. Gainera, kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko du/te eta baldintza-orri honetan aurreikusitako baliabideak atxikitze konpromisoa hartuko du/te. Hori guztia azpikontratatu d(ir)en zerbitzuari/zerbitzuei dagokio/enez.

Enpresa azpikontratugileek/ak enpresa esleipendun(ar)en aurrean hartzen du/te konpromisoa, hortaz, enpresa kontratugileak/ek erantzungo du/te DONOSTIA KULTURAREN aurrean eskaintzen du(t)en zerbitzuagatik, betiere Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orrian, Baldintza Teknikoen Orrian eta sinatzen den kontratuan adierazitakoari lotuta.

28. KONTRATUAK ALDATZEA

Kontratazio Organoak kontratua/k aldatu ahal izango d(it)u, SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

29. ERANTZUKIZUNA

Enpresa kontratugileak/ek izango du/te egiten ditu(zt)en lanen eta eskaintzen ditu(zt)en zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten ditu(zt)en utzikeriek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko ondorioek DONOSTIA KULTURARI edo hirugarren batzuei eragin diezazkiekeen ondorioena ere.

Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz, hirugarrenei eragin ahal zaizkien edo langileek (enpresa esleipendunaren langile propioek edo azpikontratatuak) jasaten dituzten kalte eta galera guztien kalte-ordainak enpresa kontratugileak/ek ordainduko ditu/zte.

DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik edukiko, enpresa kontratugile(ar)en ordezkarien, horien lankideen edo horiekin batera lan egiten duten pertsonen egiteen edo ez-egiteen ondorioz hirugarren pertsonen gainean eragiten diren kalteen aurrean.

30. KONTRATUAK ETETEA

DONOSTIA KULTURAK kontratuaren etetea adosten badu, edo etetea SPKLTBren 216. artikuluko 5. atalean xedatutakoa aplikatzeagatik egiten bada (kasu honetan berriaz aplikatzekoa da), dagokion Akta egingo da. Idatzi horretan, etetea eragin duten arrazoiak eta kontratuaren egoera adieraziko dira.

Behin kontratua etetea erabaki eta gero, DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratugileari/ei jasan ditu(zt)en kalte eta galerak ordainduko dizkio/e.

31. HARRERA

Kontratua/k guztiz beteko ditu/zte enpresa kontratugileak/ek zerbitzugintza osorik egin du(t)enean, betiere kontratuan adierazitako baldintzetan eta DONOSTIA KULTURAREN adostasunarekin.

Zati bakoitza jasotzen duenean eta lana osorik jasotzen duenean, DONOSTIA KULTURAK erabakiko du enpresa kontratugileak/ek egindako prestazioak kontratua betetzeko ezarritako preskripzioekin bat ote datozen eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak eskaintzeko eta prestazioak jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio/e.

Enpresa kontratugileari/ei egotz dakizkiokeen/ekeen akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, DONOSTIA KULTURAK horiek bazter ditzake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Betiere, **25. Klausulan** aurreikusitakoari kalterik egin gabe; edozein kasutan, DONOSTIA KULTURAK dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, bai eta kalte eta galeren kalte-ordainak ere, kontratuaren xede den prestazioa eskaintzeko atzerapenik izan bada edo gauzatze akastuna egin bada.

32. KONTRATUAK SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLTBren 223. artikuluko a) -85. artikuluan xedatutakoa kaltetu gabe-, b), d), f), g) eta h) hizkietan adierazitakoak eta 299. artikuluan adierazitakoak eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharratze, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako edozein kasutan, automatikoki egingo da suntsiarazpena; nahikoa izango da DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratugileari/ei jakinarazpena bidaltzea.

Horrez gain, dagozkion kontratuen likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian adierazten denaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagozkion dokumentazioa eta lanak aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, DONOSTIA KULTURAK hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Ezetzatzen bada, enpresa kontratugileak/ek benetan egin ditu(zt)en lanen prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du/te, hasiera batean.

Enpresa kontratugileari/ei egotzi ahal zaizkion/en arrazoiengatik indarririk gabe uzten bada kontratua, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 20 pareko kantitatea zergapetuko da DONOSTIA KULTURAREN alde, izaera metagarriarekin, kasuan-kasuan ordaindu beharreko kalte eta galeren ordainez gain.

Bi kopuru horiek behin betiko bermetik eta enpresa kontratugileari/ei ordaintzeke dagoen kopurutik kenduko dira eta, hala badagokio, soberan geratzen den kopuruaren gainean erreklamazioa egingo da.

33. ARAUBIDE JURIDIKOA

Prestaketari eta esleipenari dagokionez, kontratua honako hauek arautuko dute: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orriak, Baldintza Teknikoen Orriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, kontratatzeke barne-instrukzioek eta SPKLTBn horri buruz ezarritako arauak; eta, hala badagokio, 817/2009 Errege Dekretuak, maiatzaren 8koa eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen zatiko garapena egiteko denak (817/2009 ED aurrerantzean) adierazitakoek (SPKLTBren II. eranskineko 17. kategoriatik 27.era arteko batean sailkatutako kontratuetarako) eta SPKLTBn aurreikusitakoaren kontra ez dagoen guztian, APKLAOn xedatutakoek.

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoek arautuko dute kontratua: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orri honek eta Baldintza Teknikoen Orriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, SPKLTBren I. Liburuko V. Tituluan kontratuak aldatzeko ezarritako arauak aplikatuko dira.

Horrez gain, SPKLTB, 817/2009 ED eta HAKLEO aplikatzekoak izango dira Orri honek testu arauemaile horietara espresuki jotzen duenerako.

34. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenak izango du kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokionez bi alderdien artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

Kontratazio-esparruko errekurtsio berezia SPKLTBren 40. eta ondorengo artikuluetan aurreikusitakoaren arabera aurkeztuko da errekurtsio berezia.

Aipatutako errekurtsio berezia ezarriko da Donostiako Udalarekiko errekurtsioa indargabetezko eskuduntza duen organoaren aurrean, DONOSTIA KULTURAREN kontratatzeke barne-jarraibideetan eta SPKLTBren 41. artikuluko 4. eta 5. idatz-zatietan aurreikusitakoaren arabera.

Jurisdikzio-ordena zibilak izango du kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokionez bi alderdien artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

Donostia / San Sebastián, 2013ko apirilaren 21


donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura
EEP - EPE
Juan Carlos Izagirre Hortelano jauna

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN lehendakaria